

Euskal Herria
País Vasco
Basque
Country



Joseba Zulaika

Tradizioak

Tradiciones ■ Traditions



etxe
pare
EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO
BASQUE INSTITUTE



Joseba Zulaika

Tradizioak

Tradiciones ■ Traditions

EUSKAL HERRIA
PAÍS VASCO
BASQUE COUNTRY

Euskal Kultura Saila

Colección Cultura Vasca / Basque Culture Series

- 1 Euskararen historia laburra / Breve historia de la lengua vasca / A Brief History of the Basque Language
- 2 XX. mendeko euskal literatura / Literatura vasca del siglo XX / Basque Literature in the Twentieth Century
- 3 Euskal musika klasikoa / Música clásica vasca / Basque Classical Music
- 4 Euskal kantagintza: pop, rock, folk / La canción vasca: pop, rock, folk / Basque Songwriting: Pop, Rock, Folk
- 5 Estanpa bilduma / Colección de estampas / A Collection of Prints
- 6 Euskal zinema / Cine vasco / Basque Cinema
- 7 Arkitektura eta diseinua / Arquitectura y diseño / Architecture and Design
- 8 Euskal dantza / La danza vasca / Basque Dance
- 9 Bertsolaritza / El bertsolarismo / *Bertsolaritza*
- 10 Tradizioak / Tradiciones / Traditions**
- 11 Euskal sukaldaritzaz / Sobre cocina vasca / On Basque Cuisine
- 12 Euskal antzerkia / Teatro vasco / Basque Theater

Euskal Kultura Sailaren editorea
Editora de la Colección Cultura Vasca
Basque Culture Series Editor:

Mari Jose Olaziregi

© **Testua / Texto / Text:**

Joseba Zulaika

© **Euskarazko itzulpena:**

Mitxel Murua

© **Traducción al español:**

Oscar Gilella

© **Diseinua / Diseño / Design:**

Tiktak multimedia

© **Azala / Portada / Front Cover:**

"Argazki". Eusko Jaurlaritzako irudi-bankua /
Banco de imágenes de EJ-GV. Mikel Arrazola

Inprimatzailea / Imprime / Printed by:

Gráficas Dosbi

L.G. / D.L. / L.D.: VI-77/2012

ISBN: 978-84-614-9759-1

Etxepare Euskal Institutua

Instituto Vasco Etxepare / Etxepare Basque Institute

Prim 7, 1

E- 20006 Donostia-San Sebastián

etxepare@etxepare.net

www.etxepareinstitutua.net

Euskara, jalgi hadi mundura

Euskara, muéstrate al mundo

Euskara, go forth into the world

1545. urtean, Bernart Etxeparek bere *Linguae Vasconum Primitiae*, euskarazko lehenengo liburua, argitaratu zuenean, desira bat adierazi zuen: “**Euskara, jalgi hadi mundura**”.

Etxepare Euskal Institutuak gure lehenengo idazlearen omenez hartu du izena, eta, haren desira gure izatearen ardatz bilakaturik, euskara eta euskal kultura mundura ateratzea eta zabaltzea du helburutzat.

Batetik, gure eginkizuna euskararen ezaguera sustatzea da eta haren ikasketa bultzatzea esparru akademikoan; eta bestetik, gure sortzaileak eta haien adierazpen artistikoak nazioartean ezagutarazten ahalegintzen gara: gure artista plastikoak, musikariak, dantzariak, idazleak, zine-zuzendariak, antzezleak...

Gure hizkuntza eta kultura munduan barrena zabaltzeko ahalegin horretan, liburu-sorta bat sortzea izan da gure lehenengo lanetako bat, horren bidez informazioa emateko euskarari buruz eta gure kultura osatzen eta aberasten duten alor artistiko eta kultural guztiei buruz.

En 1545, se publicó el primer libro en euskara *Linguae Vasconum Primitiae* de Bernart Etxepare, quien formuló un deseo: “**Euskara, jalgi hadi mundura**” (Euskara, muéstrate al mundo).

El Instituto Vasco Etxepare toma su nombre de este primer autor vasco, y convierte, además, su deseo en nuestro lema. Siendo el objetivo y la misión del Instituto la de promover y difundir la lengua y la cultura vasca por todo el mundo.

Por un lado, es nuestra tarea fomentar el conocimiento sobre nuestra lengua, y su aprendizaje en el ámbito académico. Y por otro, queremos dar a conocer internacionalmente las manifestaciones artísticas de nuestros creadores: artistas plásticos, músicos, bailarines, escritores, directores de cine, actores, etc.

Una de las primeras tareas en la internacionalización de nuestra lengua y cultura ha sido crear esta colección con el objetivo de informar sobre nuestro idioma, el euskara, y sobre todas las disciplinas artísticas y culturales que conforman la riqueza de nuestra cultura.

In 1545 the first book in Euskara, *Linguae Vasconum Primitiae*, was published by Bernart Etxepare, who expressed one wish: **Euskara, jalgi hadi mundura** *Euskara, go forth into the world*.

The Etxepare Basque Institute takes its name from this first Basque author and, moreover, converts his wish in our motto. The Institute's objective and mission is to promote and diffuse the Basque language and culture throughout the world.

On the one hand, our task is to promote knowledge about our language, and its study in the academic sphere. And on the other, we want to introduce the creative expressions of our artists: visual artists, musicians, dancers, writers, film directors, actors, and so on.

One of the first tasks in the internationalisation of our language and culture has been to create this collection with the aim of informing people about our language, Euskara, and about the artistic and cultural disciplines that make up the wealth of our culture.

Aizpea Goenaga

Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria
Directora del Instituto Vasco Etxepare
Director of the Etxepare Basque Institute

Aurkibidea

Índice ■ Index

Laburpena Sinopsis Abstract	6
Euskaldunen irudia historian Representaciones históricas de los vascos Historical Representations of the Basques	12
Apartekoak al dira euskaldunak? ¿Son únicos, los vascos? Are Basques Unique?	16
Historiaurreko euskal artea eta tresnak Arte y artefactos prehistóricos vascos Basque Prehistoric Art and Artifacts	22
Erromanizazioa eta kristautzea Romanización y cristianización Romanization and Christianization	30
Baserría eta auzotasuna La cultura de los caseríos y las vecindades The <i>Baserrí</i> and <i>Auzo</i> Culture	44
Baserritarren eta arrantzaleen tradizioak eta horien arteko aldeak Contrastes entre las tradiciones pesquera y agrícola The Contrasting Fishing and Farming Traditions	58
Euskal bestiaría El bestiarío vasco A Basque Bestiary	68
Folklore eta ahozotasuna Folclore y oralidad Folklore and Orality	72

Bibliografía / Bibliografia / Bibliography 78

Argazkiak / Fotografías / Photographs 79

Joseba Zulaika 80

Joseba Zulaika

Laburpena

Sinopsis ■ Abstract

Tradizioa gaur egungo kulturaren parte da. Etnografoek eta folklore-ikertzaileek alderdi desberdinetatik aztertu dute euskal kultura tradizionala. Saiakera honetan, antropologo kulturelek egin dituzten aurkikuntzak jasotzen dira. Ikertzaile guztiak ohartzen dira, nolana ere, giza portaeraren ikuspegi esentzialistak ezin zaizkiela erantsi gaur egungo euskaldunei, mundu globalizatu eta postmoderno batean bizi direnez. Hori guztia kontuan hartuz, tradizioak euskal gizartearen parte zabal baten mundu-ikuskerari nola eragin zion iraganean aztertu nahi dugu hemen, eta baita gaur egun nola eragiten dion ere.

Saiakera honetan euskaldunei buruz gaur arte iraun duten estereotipo batzuk berrikusten dira. Euskal tradizioen “berezitasuna”ren oinarrian –halakorik izan bada– zer ote dagoen aztertzen da, eta aurkikuntza arkeologikoen berri ere ematen da. Ondoren, Euskal Herriko historiaurreko artea eta tresnak aztertu eta haiei buruz egin diren interpretazioak ikusten dira. Euskal populazioaren erromanizazioari eta kristautzeari buruzko artxibo historikoak aurkeztu eta gero, baserria instituzio gisa aztertzen du saiakerak, haren kultura, giza antolaketa tradizionala eta auzoekiko harremanak. Segidan, arrantza eta nekazaritza alderatzen dira, bi bizibide horiek printzipalak baitira gizarte tradizionallean, eta bakoitzak bere mundu-ikuskerara propioa baitu. Animaliek etxean duten eginkizuna deskribatzen da hurrena, eta baita ehiza ere; halaber, zezenak kultura tradizionallean duen konplexutasuna ikusten da. Bestiariora dator atzetik, kulturaren eta hizkuntzaren adierazpenetan metafora-iturri dena. Saiakeraren bukaeran, kultura eta folklore tradizionallean ahozkotasanak duen garrantziari erreparatzen zaio, eta horren barruan leku berezia ematen zaio batbateko bertsolaritzari.

La *tradicón* es un componente de la cultura contemporánea. Los diversos aspectos de la cultura tradicional vasca han sido estudiados en su mayoría por etnógrafos y folcloristas. Este ensayo agrupa los hallazgos de antropólogos culturales conscientes de que las visiones esencialistas de la conducta humana difícilmente pueden aplicarse a los vascos contemporáneos que viven en un mundo globalizado y posmoderno. Estamos interesados en la manera en que la tradición ha afectado la visión del mundo de una gran parte de la sociedad vasca en el pasado y en cómo continúa haciéndolo en el presente.

El ensayo revisa algunos de los estereotipos imprecisos acerca de los vascos. Explora las bases, de haberlas, de la “singularidad” de las tradiciones vascas, e incluye los hallazgos arqueológicos. Examina la presencia relevante del arte y los artefactos prehistóricos vascos, así como las diversas interpretaciones que se han hecho de ellos. Tras presentar el archivo histórico de la romanización y cristianización de la población vasca, el ensayo trata de la cultura y la organización social tradicional de la explotación agraria del caserío y sus relaciones vecinales. Contrapone la pesca y la agricultura como las dos principales figuras profesionales y visiones del mundo de la sociedad tradicional. Se describe el papel de los animales en la granja y la caza, así como la complejidad cultural del toro; asimismo, se considera el papel del bestiarío como fuente de metáforas en la cultura expresiva. El ensayo concluye con la naturaleza oral de la cultura y el folclore tradicionales, e incluye la institución de la improvisación de versos trovadorescos, o bersolaris.

Tradition is a component of contemporary culture. The various aspects of Basque traditional culture have been studied mostly by ethnographers and folklorists. This essay brings together findings by cultural anthropologists who are aware that essentialized views of human behavior can hardly apply to contemporary Basques living in a globalized and postmodern world. We are interested in how tradition has informed the worldview of a large part of Basque society in the past and how it continues to do so at present.

The essay reviews some of the enduring stereotypes about the Basques. It explores what the grounds are, if any, for the “uniqueness” of Basque traditions, including archeological findings. It examines the relevant presence of Basque prehistoric art and artifacts, and the various interpretations given to them. After introducing the historical record of the Romanization and Christianization of the Basque population, the essay discusses the traditional social organization and culture of the *baserri* farmstead and its neighborhood relationships. It contrasts fishing and farming as the two main occupational characters and worldviews of traditional society. The role of animals in farming and hunting is described, as well as the cultural complex of the bull; the role of the bestiary as a source of metaphor in expressive culture is considered. The essay concludes with the oral nature of traditional culture and folklore, including the institution of troubadour verse improvisation or *bertsolaritza*.



Jose Miguel Barandiaran ikerketa-lanean / José Miguel Barandiarán realizando trabajo de campo / Jose Miguel Barandiaran doing field-work.

Euskaldunak, Europaren barruan, gizarte eta kultura moderno eta postindustrial batean bizi dira. Hala ere, *tradizioa* euskaldunen nortasun politikoaren eta kulturalaren funtsezko partea da gaur egun ere.

Folklorista eta etnografo askok alderdi desberdinetatik aztertu dute euskal kultura; hala ere, bada ikerlari bat, denen gainetik nabarmentzen dena: Jose Miguel Barandiaran (1890–1991). Aita Barandiaranek ezin konta ahala arkeologia-ikerketa egin zuen, eta giza hezur asko aurkitu zituen haietan; hala ere, Barandiaranen eskolak egin zuen lanik handiena galtzeko bidean ziren antzinako mitoak eta sinismenak biltzea izan zen, makina bat kontu zahar jaso baitzuen eta baita antigoaleko tresnak, lanabesak eta beste gauza asko ere. Aita Barandiaranen ikasleen artean, Julio Caro Baroja (1916–95) nabarmendu behar da. Antropologia eta historia soziala konbinaturik, ehun liburutik gora idatzi zituen, eta haren lana funtsezkoa da euskal kultura eta gizartea aztertu nahi duen orontzat. Gaur egun, antropologoek belaunaldi berri bat ari da lanean euskal politikako eta kulturako gaien inguruan, eta tradizioak gaur egungo bizimoduan daukan eragina ikertzen dute bereziki. Saiakera honek antropologiaren ikuspegitik begiratzen die euskal kultura tradizionalari buruz egin diren ikerketen emaitzei. Lan honen bertsio osatuagoa aurkituko du irakurleak *Basque Culture, Anthropological Perspectives* liburuan (William A. Douglass eta Joseba Zulaika).

Antropologoek giza esperientzia konfigurazio sozialetan eta kulturaletan banatzeko joera izaten dute; gero, konfigurazio horiek kultura espezifikoetan bateratzen dituzte, eta kultura horietako bakoitza bizitzeko modu jakin baten –bakarraren– adierazpena dela kontsideratzen dute. Joera horren herentziak, ordea, arazoak sortzen ditu, eredu antropologikoen sarritan modu homogeen eta monolitikoan irudikatzen eta sailkatzen baitituzte pertsonak, gizataldeak eta kulturak. Alde horretatik begirata, ordea, nekez erantsi dakieke giza portaeraren ikuspegi esen-

Los vascos viven en una sociedad y una cultura europeas modernas y posindustriales. Sin embargo, la *tradicición* sigue siendo un componente primordial de su identidad cultural y política.

Muchos folcloristas y etnólogos han estudiado los diversos aspectos de la cultura tradicional vasca, de los que sobresale una figura centenaria: José Miguel de Barandiarán (1890-1991). Barandiarán llevó a cabo innumerables investigaciones arqueológicas que revelaron restos óseos humanos, pero el pilar de su escuela fue la recopilación de creencias, mitos, rasgos y artefactos antes de que desaparecieran. De entre sus discípulos, destaca la figura de Julio Caro Baroja (1916-1995). Combinando antropología e historia social, Caro Baroja fue el autor de más de cien libros; su obra es indispensable para cualquier estudiante de la cultura y la sociedad vascas. En la actualidad existen nuevas generaciones de antropólogos que investigan temas políticos y culturales vascos, incluida la influencia de la tradición en los estilos de vida actuales. Este ensayo aglutina los hallazgos acerca de la cultura tradicional vasca desde una perspectiva antropológica. La versión ampliada de este texto se encuentra en el libro de William A. Douglass y Joseba Zulaika, *Basque Culture: Anthropological Perspectives (La cultura vasca: perspectivas antropológicas)*.

Los antropólogos tienden a dividir la experiencia humana en configuraciones sociales y culturales distintas que luego tienden a reunificar en culturas específicas, cada una de las cuales representa un único modo de vida. Un aspecto particularmente problemático de esta herencia ha sido la tendencia de los modelos antropológicos a representar las gentes y las culturas en términos homogéneos y monolíticos. Sin embargo, difícilmente puede aplicarse una visión esencialista del comportamiento humano a los vascos actuales, que viven en la posmodernidad fragmentada de un mundo globalizado en el siglo XXI.

Basques live in a modern, postindustrial European society and culture. Yet *tradition* is very much a primordial component of their cultural and political self-definitions.

Many folklorists and ethnographers have studied the various aspects of Basque traditional culture, but one centenarian figure stands out: Jose Miguel Barandiaran (1890-1991). Barandiaran conducted innumerable archeological investigations and uncovered human skeletal material, but the main thrust of his school was the collection of beliefs, myths, traits, and artifacts before they would disappear. Among his many disciples excels the figure of Julio Caro Baroja (1916-95). While combining anthropology and social history, Caro Baroja authored more than a hundred books; his work is indispensable for any student of Basque culture and society. There are now new generations of anthropologists doing research on Basque political and cultural issues, including the influence of tradition on current lifestyles. This essay brings together the findings about Basque traditional culture from an anthropological perspective. An expanded version of this text can be found in William A. Douglass and Joseba Zulaika, *Basque Culture: Anthropological Perspectives*.

Anthropologists tend to parse the human experience into distinctive cultural and social configurations that then tend to be reified into specific cultures —each representing a unique way of life. A particularly problematic aspect of this legacy has been the tendency of anthropological models to portray peoples and cultures in monolithic, homogeneous terms. An essentialized view of human behavior, however, can hardly apply to the current Basques living in the fragmented postmodernity of the 21st century globalized world.

On the other hand, from the perspective of the “invention of tradition” carried out by the anthropological disciplines, the key question is not whether such

10 Gakoa ez da identitate tradizionala berriki asmatua izan den kontsideratzea; hori baino garrantzitsuagoa da kontuan hartzea horrek nolako eragina izan zuen iraganean euskaldun askoren mundu-ikuskeran eta nolako eragina izaten jarraitzen duen gaur egun ere.

tzialista garuko euskaldunei, XXI. mendean, mundu globalizatu bateko posmodernitate zatikatuan bizi direnez.

Bestetik, diziplina antropologikoen “tradizioa asmatu” ere egiten dute, eta, ikuspegi horretatik begiratu, gakoa ez da identitate tradizionala berriki asmatua izan den kontsideratzea; hori baino garrantzitsuagoa da kontuan hartzea horrek nolako eragina izan zuen iraganean euskaldun askoren mundu-ikuskeran eta nolako eragina izaten jarraitzen duen gaur egun ere. Era beran, aintzat hartu beharrekoa da identitate tradizional horrek nola sustatu dien emigranteei, atzerri joan eta mundu osoan euskal diasporak sortu dituzten euskaldunei, gizarte edo talde baten parte direlako elkartasun-sentimendua.

Por otro lado, desde la perspectiva de la “invención de la tradición” llevada a cabo por las disciplinas antropológicas, la cuestión clave no es si dicha identidad tradicional se ha inventado recientemente, sino cómo esta ha afectado a la visión del mundo de un gran número de vascos en el pasado y cómo continúa haciéndolo en el presente. Asimismo, debe considerarse la manera en que ha proporcionado un sentimiento de solidaridad grupal a los emigrantes que han formado diásporas en diversos países de acogida por todo el mundo.

traditional identity has been recently invented, but rather how it has informed the worldview of a large number of Basques in the past and how it continues to do so at present. It is also to be considered how it has provided a sense of group solidarity to emigrants who have formed Basque diasporas in several host countries around the world.

Euskaldunen irudia historian

Representaciones históricas
de los vascos

Historical Representations
of the Basques

Oraindik ere bizirik diraute euskaldunei buruzko irudiak eta estereotipoak. Horietako bat euskaldunen “misterio”aren ingurukoa da. Hona hemen Rodney Gallop-ek emandako adibide bat: “Euskal arrazaren jatorriari eta historiari buruzko misterioak, beren hizkuntza bihurriaren zailtasunak eta kanpoko munduarekin harremanak izateko agertzen duten erreparoak (seguruenik horri zor diote herri gisa iraun izana) urruntasun-aire bat ematen diete euskaldunei eta giro erromantiko moduko bat eransten diete.”

Herrialde misteriotso honek, Erromantizismoaren eskutik berriro aurkitua izan zenak, igarkizun desafiatzaile bat planteatzen zuen, sakontasun historikoez eta historiaurreko esanahi ezkutuez betea; eta, areago, igarkizunak bazituen zientziak oraindik idoro ez dituen kontinente galdu edo urperatuekin balizko loturak ere. Igarkizunak euskaldun jendearen fisionomian ere utzi du bere arrastoa, zeren eta euskaldunak deskribatzean berezitasun fisiko eta fenotipiko jakin batzuk eransten baitzaizkie, beren garezurrean, aurpegieran, odol motan eta genoman agertzen direnak. Euskara ez da hizkuntza indoeuroparra; ez da ezagutzen haren jatorria eta ezta beste hizkuntza batzuekin loturarik baduenik ere. Bereztasun biologiko eta linguistiko horien konbinaziotik atera dute zenbait adituk “euskaldunen arraza” Europako zaharrena delako ondorioa.

Gallopek honela esaten du aurrerago: “Bizkaiko Badiaren ertzean, Pirinioak itsasora jaisten diren lekuan, bada herrialde irribarretsu bat, xarma handi ugarikoa, kostalde malkartsu eta arrailez betea duena, uhinen moduan hedatzen diren mendixkaz josia, ote urrekolorez eta hariztiz edo gaztainadiz estaliak guztiak; amurrairekak, artasoroak nonahi, bideak itzalpean, mahastiak eguzkitan eta sagardiak. Antzina-antzinatik, arraza misteriotso bat bizi da herrialde honetan, eta bertakoei *baskoak* deitzen diegu, nahiz eta beraiek *eskualdunak* direla esan eta izen hori erabiltzen duten beren burua izendatzeko; beren herrialdeari, berriz, *Eskual Herria* edo *Euzkadi* esaten diote,

Todavía hoy en día perviven imágenes y estereotipos sobre los vascos. Uno de ellos concierne a su “reserva”. Rodney Gallop ofrece un ejemplo de ello: “El misterio que rodea los orígenes y la historia del pueblo vasco, la dificultad de su lengua bárbara y la gran reserva que muestran en cualquier contacto con el mundo exterior (una reserva a la que se debe, sin duda, su supervivencia como pueblo) les confiere un aire de lejanía y les envuelve en una atmósfera romántica.”

Esta tierra misteriosa, redescubierta por el Romanticismo, planteaba un acertijo desafiante repleto de trascendencia histórica, significados prehistóricos ocultos e incluso asociaciones potenciales con continentes perdidos o sumergidos todavía por descubrir por la ciencia. El acertijo ha dejado su impronta también en la fisonomía de los individuos vascos, a los que se describe como poseedores de rasgos físicos o fenotípicos diferenciadores según lo evidenciado por sus cráneos, características faciales, tipos sanguíneos y genoma. El idioma vasco no es indoeuropeo. Se desconocen sus orígenes y asociaciones posibles con otras lenguas. Esta combinación de singularidad biológica y lingüística ha llevado a muchos eruditos a proclamar que los vascos son la “raza más antigua” de Europa.

Gallop sigue diciendo: “A orillas de la Bahía de Bizkaia, donde los Pirineos descienden hasta el mar, yace una tierra sonriente cuyo encanto variopinto está formado por una costa hendida y escarpada, colinas ondulantes cubiertas por aulagas doradas y bosques de robles o castaños, ríos de truchas y maizales, caminos sombreados, viñedos bañados por el sol y manzanales. Desde tiempos inmemoriales, esta tierra ha sido habitada por una raza misteriosa a cuyos integrantes llamamos vascos, aunque ellos se denominan a sí mismos *Eskualdunak* y a su tierra *Eskual Herria* o *Euzkadi*, un nombre que quizá derive de la palabra vasca para ‘sol’”. Existen pocas razas sobre la faz de la tierra de cuyo origen se conozca tan poco

There are enduring popular images and stereotypes of the Basques. One of them concerns their “mysteriousness.” An instance is provided by Rodney Gallop: “The mystery surrounding the origins and history of the Basque race, the difficulty of their uncouth tongue and the great reserve which they display in all their contacts with the outside world, a reserve to which is due, in all probability their survival as a race, have invested them with an air of remoteness and woven around them an atmosphere of romance.”

This mysterious land, rediscovered by the Romantics, posed a challenging riddle pregnant with historical depth, occult prehistoric meanings, and even potential associations with lost or submerged continents yet to be discovered by science. The riddle has left its mark on even the physiognomy of the Basque people, who are depicted as having several differentiating physical or phenotypical traits as evidenced by their skulls, facial features, blood types, and genome. The Basque language is non-Indo-European. Its origins and possible associations with other tongues are unknown. This combination of biological and linguistic uniqueness has led many scholars to proclaim the Basques to be Europe’s “oldest race.”

Gallop continues: “On the shores of the Bay of Biscay, where the Pyrenees slope down to the sea, there lies a smiling land whose varied charm is made up of indented sea-coast, rugged, rolling hills covered with golden gorse and forests of oak or chestnut, trout-streams and maize-fields, shady lanes, sun-soaked vineyards and apple orchards. From time immemorial this land has been inhabited by a mysterious race whom we call the Basques, but who call themselves *Eskualdunak*, and their land *Eskual Herria* or *Euzkadi*, a name which may, perhaps, be derived from the Basque word for ‘sun’. There are few races on the face of the earth of whose origin so little is known, and who have exercised such a fascination over ethnologists and philologists of every

René Le Pays-ek, 1659an, honako hau idatzi zuen: “han [Euskal Herrian] alaitasuna jaiotzearekin batera hasten da eta heriotzarekin baino ez da bukatzen.”

eta azken izendapen hori ‘eguzki’ euskal hitzetik etor daiteke agian”. Arraza honen jatorriaz gutxi dakigu, munduan ez dira arraza asko izango alde horretatik hain ezezagunak baina, aldi berean, hainbesteko lilura eragiten dutenak etnografoen eta filologoek artean. ‘Gure historiak ezkututzen digun arazorik handiena’, idatzi zuen Camille Jullian-ek, auzia puzteko asmorik gabe, ‘euskaldunen jatorriarena da.’

Euskaldunek irudi txarra izan dute historian zehar; hala, “baskoiak”, antzinako euskalduntzat hartzen direnak, fedegabe basati eta anker gisa deskribatu zituzten K.o. IV. mendean; beste deskribapen bat K.o. 1120an erregistratu zen, eta hartan esaten da euskaldunak hizkuntza arraro bat hitz egiten duten giza arraza bat direla, eta beraiekin bizi diren piztiak bezain basatiak, odolzaleak eta ankerrak direla. XVII. mendean, Pierre de Lancre inkisidoreak esan zuen euskaldunek sorginkeriarako joera zutela, sagardo gehiegi edaten zutelako. XVI. eta XVII. mendeetan pirata eta kortsario krudeltzat hartzen zituzten euskaldunak. Gaur egun, terroristatzat dauzkate askok. Bestetik, ordea, badira alderdi onak nabarmentzen dituzten deskribapenak ere, eta haietan euskaldunen alaitasuna, bizi-poza, markatzen da bereziki. Estrabon kronikari erromatarrak kontatzen zuen, ilbetean, euskaldunek dantza egiten zutela jai-giroan, beren etxaurrean, izenik gabeko jaingo bati men eginez. 1528an, Andrea Navagerok honako hau utzi zuen idatzita: “Beti dabilta barreka, txantxetan eta dantzan, hala gizonezkoak nola emakumeak.” René Le Pays-ek, 1659an, honako hau idatzi zuen: “han [Euskal Herrian] alaitasuna jaiotzearekin batera hasten da eta heriotzarekin baino ez da bukatzen.” Aro erromantikoan, Wilhelm von Humboldt-ek “euskal nobleak” noble basatitzat zeuzkan. Era berean, zenbaitetan euskaldunak heroien irudi gisa ageri dira literaturan; adibidez, kontrabandista da Pierre Lotiren *Ramuntcho* (1896), eta birjina Pierre Lhanderen *Mirentchu dontzeila* (1911).

y que hayan ejercido tal fascinación en etnólogos y filólogos de todas las nacionalidades: ‘El mayor problema que presenta nuestra historia’, escribe Camille Jullian sin ánimo de exagerar, ‘es el del origen de los vascos.’

La imagen negativa de los vascos a lo largo de la historia incluye a los vascones, que fueron descritos como paganos feroces y brutales (siglo IV d.C.); otra descripción registrada en el año 1120 d.C. describe a los vascos como una raza que habla una lengua extraña, verdaderos salvajes sedientos de sangre y feroces como las bestias salvajes con las que conviven. En el siglo XVII, el inquisidor Pierre de Lancre describió a los vascos como seres propensos a la brujería porque bebían demasiada sidra. En los siglos XVI y XVII eran vistos como piratas y corsarios crueles. En la actualidad, a menudo se les considera terroristas.

Por el contrario, las imágenes positivas inicialmente giraban en torno al comportamiento exuberante de los vascos. El cronista romano Estrabón relata que, durante la fase de luna llena, los vascos danzaban y festejaban delante de sus hogares en honor a una diosa sin nombre. En 1528, Andrea Navagero dejó constancia de que “Esa gente siempre está riendo, bromeando y danzando, tanto hombres como mujeres”. René Le Pays, en 1659, escribió que “allí [en el País Vasco] la diversión empieza con la vida y sólo termina con la muerte”. Durante el Romanticismo, Wilhelm von Humboldt veía al “noble vasco” como a un noble salvaje. Los vascos también aparecieron en retratos literarios heroicos tales como el contrabandista Ramuntcho (1896) de Pierre Loti y la dama Mirentchu (1911) de Pierre Lhande.

nationality: ‘The most difficult problem presented by our history,’ writes Camille Jullian with hardly a trace of exaggeration, ‘is that of the origin of the Basques.’”

Negative images of the Basques throughout history include the Vascones, who were depicted as brutal and ferocious pagans (fourth century AD); another description recorded in 1120 AD features the Basques as a race speaking a strange language –real savages, as bloodthirsty and ferocious as the wild beasts with whom they live. In the seventeenth century, the inquisitor Pierre de Lancre depicted Basques as prone to witchcraft because they drank too much cider. In the sixteenth and seventeenth centuries, they were seen as cruel pirates and corsairs. In current times Basques are frequently seen as terrorists.

Positive images, by contrast, initially revolved around Basques’ exuberant behavior. The Roman chronicler Strabo relates that during the full moon, Basques danced and feasted in front of their dwelling places in honor of a nameless god. In 1528, Andrea Navagero recorded that “These people are always laughing, joking, and dancing, both men and women.” René Le Pays, in 1659, wrote that “joy begins there [the Basque Country] with life and ends only with death.” During the Romantic period, Wilhelm von Humboldt saw the “noble Basque” as noble savage. Basques also appeared in such heroic literary portraits as Pierre Loti’s contrabandist Ramuntcho (1896) and Pierre Lhande’s maiden Mirentchu (1911).

Apartekoak al dira euskaldunak?

¿Son únicos, los vascos?
Are Basques Unique?

Euskaldunak bereziak eta apartekoak direla baieztatzeko argudioak artxibo arkeologikotik ateratzen dira lehenik eta behin. Zenbait aztarnategitan egin diren indusketetan egiaztatu da euskaldunak Pirinioetako mendebaldean bizi izan direla gutxienez orain dela bost mila urtetik gaur arte. Alabaina, historiaurreko artxiboen interpretazio zabalago batek proposatzen du Lascaux-eko (Frantziako hegoaldean) eta Altamirako (Espainiako iparraldean) haitzuloetako pintura-egileen ondorengoak izan daitezkeela euskaldunak, labar-arte horren eredu ikusgarriak aurkitu direnez Euskal Herrian. Ikuspegi horren arabera, euskaldunak beren sorterrian bizi izan dira azken hamabost mila urteetan gutxienez. Zenbait ikerlari areago joan dira, eta aditzera eman dute Europako Cro-Magnon gizakiaren populazioaren hondar modernoak direla euskaldunak; teoria horrek berrogeita hamar mila urte atzera eramango luke euskaldunen historiaurreko erreferentziaren lerroa. Edozein interpretazio ontzat hartzen delarik ere, datu arkeologikoen Pirinioetako mendebalean kokatzen dute protoeuskaldunen edo euskaldunen bizilekua orain dela lau mila urte baino lehenagotik, tribu indoeuroparrek Asiako mendebaleko lurraldeak inbaditu aurretik, alegia. Inbasio haiek jarri zituzten oinarriak gaur egun ezagutzen dugun Europako etnien banaketa ehuntzeko.

XIX. mendean, hizkuntzalariek eta antropologoen berrasmatu egin zuten “euskaldun izate”aren kontzeptua: “euskalduntasuna”, alegia. Arkeologia, paleontologia, folklore-ikasketak, hizkuntzalaritza eta antropologia fisikoa eta kulturala euskaldunen berezitasunari begira jarri ziren, eta jakintza-adar horien konbergentziak jakin-min handia sortu zuen euskal munduaren inguruan. Garai hartan, antropologia fisikoa eta antropologia soziala eta kulturala indartzen ari ziren zientzia-diziplina gisa. Biek ala biek ikuspegi arrazista zeukaten, zeren, jendearen balio fisikoei eta kulturalari erreparatu, gizadia hierarkietan sailkatzea bilatzen baitzuten. Bibliografia zabala dago euskaldunen ezaugarri biologiko bakar eta bereziei

Los argumentos para la excepcionalidad de los vascos se fundamentan, en primer lugar, en el archivo arqueológico. Las excavaciones en varios emplazamientos del País Vasco evidencian que los ancestros de la población vasca moderna han ocupado los Pirineos occidentales durante al menos los últimos cinco milenios. Una interpretación más liberal de los archivos prehistóricos sugiere que puede que los vascos desciendan directamente de los autores de las pinturas rupestres de Lascaux en el sur de Francia y Altamira en el norte de España; efectivamente, muchas muestras magníficas de tal arte se encuentran hoy en día en la zona del País Vasco. Dicha visión sugiere que los vascos han ocupado su tierra natal durante al menos los últimos 15.000 años. Algunos investigadores incluso han sugerido que los vascos suponen el vestigio moderno de la población de cromañones de Europa; ello haría retroceder la línea de referencia prehistórica de los vascos hasta al menos 50.000 años atrás. Independientemente de la interpretación que se decida aceptar, la evidencia arqueológica sitúa la población vasca o protovasca en los Pirineos occidentales desde hace más de 4.000 años, cuando Europa fue invadida por tribus indoeuropeas procedentes de Asia occidental. Dichas invasiones crearon las bases para las principales divisiones étnicas en Europa tal como las conocemos hoy en día.

Fue durante el siglo XIX cuando los lingüistas y antropólogos prácticamente reinventaron la “condición de vasco”. Una convergencia de arqueología, paleontología, estudios folclóricos, lingüística y antropología física y cultural convirtió a los vascos en una peculiaridad intrigante. En aquellos tiempos, tanto la antropología física como la social y cultural estaban emergiendo como disciplinas científicas. Ambas eran racistas puesto que buscaban clasificar la humanidad en jerarquías de gentes en función de su valía física y cultural. Existe una extensa bibliografía respecto a las características biológicas úni-

Arguments for Basque exceptionalism have been grounded, first, on the archeological record. Excavations at various sites in the Basque Country demonstrate that the ancestors of the modern Basque population have occupied the western Pyrenees for at least the past five millennia. A more liberal interpretation of the prehistoric record suggests that Basques may descend directly from the cave painters of Lascaux in southern France and Altamira in northern Spain; and indeed, many magnificent examples of such art are found in the present-day Basque area. Such a view would suggest that the Basques have occupied their homeland for at least the past fifteen thousand years. Some investigators have even suggested that Basques are the modern remnants of Europe’s Cro-Magnon population, which would push the Basques’ prehistorical baseline back to at least fifty thousand years ago. Whichever interpretation one chooses to accept, the archeological evidence places the Basque or proto-Basque population in the western Pyrenees prior to the second millennium Before the Common Era, when there were invasions of Europe by Indo-European tribes out of western Asia; invasions that created the bases for the major ethnic divisions of Europe as we know them today.

It was during the nineteenth century that linguists and anthropologists practically reinvented “Basqueness.” A convergence of archeology, paleontology, folklore studies, linguistics, and physical and cultural anthropology constituted Basques into an intriguing peculiarity. By this time, both physical and social / cultural anthropology were emerging as scientific disciplines. Both were racist in that they sought to arrange humankind within hierarchies of peoples according to their physical and cultural worth. There is an extensive body of literature regarding unique Basque biological features and their interpretation. For example, Basques manifest blood-group frequencies that are markedly different from those

Nolanahi ere, ikertzaile gehienek argudiatzen dute euskaldunak erreserba genetiko bakartua izan direla denbora luzean Europaren barruan.

eta horien interpretazioei buruz. Adibidez, euskaldunen artean hedatuen dauden odol-taldeak ez dira agertzen halako proportzioan Europako beste ezein gizataldetan, eta, deigarria bada ere, odol-taldeei dagokienez, bereziki desberdinak dira euskaldunak eta haien inguru-hurbileko gizajendeak. Euskaldunen artean, B odol-taldeko proportzioa Europako txikiena da, eta O odol-taldeko proportzioa, berriz, handiena. Era berean, euskaldunak dute Rh negatibo faktorearen proportziorik handiena munduan. Hala ere, euskaldunak kauasiarrak dira argi eta garbi, eta, horrenbestez, ez daukate behar hainbat desberdintasun biologiko Europako beste gizatalde guztien aldean, arrazaz erabat desberdinak direla baieztatzeko, hainbat antropologo fisikok sostengatzen duten moduan. Nolanahi ere, ikertzaile gehienek argudiatzen dute euskaldunak erreserba genetiko bakartua izan direla denbora luzean Europaren barruan.

Gaurko europarren arbaso gehienek kontinentea inbaditu aurretik ere euskaldunak Pirineotako beren sorterrian bizi izan zirela agerian geratu zen neurrian, Europako herririk zaharrena zela baieztatu zen, eta euskaldunak jatorrizko europarrak direla iritzi zion antropologiak. Ikuspegi horretatik, euskaldunak gakoia izan zitezkeen protoeuroparren esentzia kulturalak eta arrazazkoak ulertzeko. Horren ondorioz, XIX. mendearen erdi aldera, Frantziako eta Suediako antropologiaren sortzaileak euskaldunak aztertzen hasi ziren, hizkuntzaren eta biologiaren ikuspegitik, euskaldunak protoeuropar peto-petoak izan zitezkeelakoan. Telesforo Aranzadi (1860-1945) izan zen euskal arkeologiari eta arrazari buruzko ikasketak abiarazi zituen ikertzaile nagusia. XIX. mendearen erdialdean, antropologiak arrazari buruz azaldu zituen teoria asko aurrena zuzendu, eta egokitu egin zituen gero. Ondorengo arkeologoek oztupo asko izan zituzten, metodologiak berak muga estuak baitzituen eta hala-moduzko hipotesiekin lan egiten baitzuten; adibidez, uste osoa zuten, azken mila urteetan gutxienez, ez dela aldaketa adierazgarririk izan eus-

cas de los vascos así como de su interpretación. Por ejemplo, los vascos presentan un índice de grupos sanguíneos que son marcadamente diferentes de cualquier otra población europea y particularmente diferentes de los de sus vecinos más cercanos. Los vascos tienen el índice más bajo de Europa del grupo sanguíneo B y el más alto del grupo sanguíneo O. Con respecto al factor sanguíneo Rh negativo, presentan el índice más alto de todo el mundo. No obstante, los vascos son claramente caucásicos y, por lo tanto, no muestran diferencias biológicas suficientes para apoyar inequívocamente la opinión de algunos antropólogos físicos que sostienen que son racialmente distintos de las demás poblaciones europeas. Sin embargo, la mayoría de investigadores argumentan que, como mínimo, los vascos han constituido de alguna manera una reserva genética aislada dentro de Europa durante un periodo de tiempo considerable.

A medida que se hizo evidente que los vascos ya habitaban su tierra natal pirenaica antes de las invasiones de la mayoría de ancestros europeos, también fue posible considerarlos como los europeos por antonomasia. De acuerdo con esta visión, eran la posible clave para entender las esencias raciales y culturales protoeuropeas. Como consecuencia, a mediados del siglo XIX, las figuras fundadoras de la antropología francesa y sueca se fijaron en el estudio tanto lingüístico como biológico de los vascos bajo la creencia de que muy bien podían tratarse de los protoeuropeos más auténticos. Telesforo de Aranzadi (1860-1945) fue la figura principal en el desarrollo de los estudios arqueológicos y raciales de los vascos. Corrigió y luego adaptó muchas de las teorías formuladas por la antropología racial europea acerca de los vascos durante la segunda mitad del siglo XIX. Arqueólogos ulteriores verían una metodología acotada por sus propias limitaciones y repleta de supuestos cuestionables, tales como que no había habido cambios significativos en los marcadores genéticos de los vascos

of any other European population and particularly different from those of their immediate neighbors. Basques have the lowest frequency in Europe of blood type B and the highest of blood type O. With respect to the Rh-negative blood factor, they have the highest frequency of any population in the world. Nevertheless, Basques are clearly Caucasians and therefore do not display sufficient biological differences to support unequivocally the contention by some physical anthropologists that they are racially distinct from other European populations. However, most investigators have argued that, at the very least, Basques have constituted a somewhat isolated genetic pool within Europe over a considerable period of time.

As it became increasingly evident that Basques had already inhabited their Pyrenean homeland prior to the invasions of most Europeans' ancestors, it was also possible to regard them as the quintessential Europeans. In this view, they were the possible key to understanding proto-European racial and cultural essences. Consequently, by the middle of the 19th century, the founding figures of French and Swedish anthropology were fixated on both the linguistic and biological study of Basques in the belief that they might well be the most pristine proto-Europeans. Telesforo de Aranzadi (1860-1945) was the main figure in the development of Basque archeological and racialist studies. He corrected and then adapted many of the theories produced by European racialist anthropology about the Basques during the second half of the nineteenth century. Subsequent archeologists would see a methodology framed by its own limitations and replete with questionable assumptions, such as that there have been no significant changes in Basque genetic markers over the last thousand years or so, or that there is not much genetic variation within the Basque population. By far the most telling evidence for the uniqueness of the Basques is the testimony of their language, or



Telesforo Aranzadi, Jose Migel Barandiaran eta Enrique Eguren, euskal arkeologiaren aitak / Telesforo Aranzadi, José Miguel Barandiarán y Enrique Eguren, padres de la arqueología vasca / Telesforo Aranzadi, Jose Miguel Barandiaran and Enrique Eguren, fathers of Basque archaeology.

kaldunen markatzaile genetikoetan edota euskal populazioaren barruan ez zegoela bariazio genetiko handirik.

Zalantzarik gabe, euskara da euskaldunen berezitasunik nabarmenena; haien ezaugarri nagusia da, eta aparteko eta bakar bilakatzen ditu. Euskarak ez du inolako loturarik Europako beste hizkuntza indoeuroparrekin; hori dela-eta, filologoen eta hizkuntzalariek oso urruti jarri behar izan dituzte begiak, euskararekin lotura izan ditzaketen beste hizkuntza batzuen bila; hala, hizkuntza kaukasiarrekin eta berebarekin erlazionatu izan da euskara, egiptoerarekin, irokesarekin eta beste hizkuntza amerindiar batzuekin ere bai, baina oraindik ez da frogatu inongo hizkuntzarekin lotura duenik. Gaur egun, hizkuntzalarientzat bere familiako hizkuntza-ordezkaririk bakarra da euskara.

Euskaldunen berezitasuna agerian jartzen duen azken ezaugarria euskaldunek beren buruaz duten kontzeptua edo irudia da. Euskaldunak berez “euskara dutenak” dira, euskaraz mintzatzen direnak. Espainiaren eta Frantziaren arteko mugaren bi aldeetako euskaldunek barneratua dute kultur tradizio bera dutela, hizkuntza bera duten bezala, eta inguruko kulturen aldean (espainola bata, frantsesa bestea) arras desberdina dela beraiena. Espainiak eta Frantziak, beren egituretan asimilatzeke, presio etengabea egin diete euskaldunei mende askoan; hala ere, euskaldunen herriak Europako mendebaldean uharte baten gisa agertzen den enklabe berezi eta aparteko bat izaten jarraitzen du gaurko mundu modernoan, eta horrek argi erakusten du euskaldunek duten irmotasuna beren tradizioei eta nortasun propioari eusteko.

durante aproximadamente los últimos 1.000 años, o que no había demasiada variación genética dentro de la población vasca.

La evidencia más reveladora con diferencia en cuanto a la singularidad de los vascos es el testimonio de su idioma, el *euskara*, tal como se llama en vasco. El euskera no tiene ningún tipo de relación con los idiomas indoeuropeos del continente, un hecho que ha obligado a los filólogos y lingüistas a dirigir su mirada muy lejos en busca de posibles conexiones con otras lenguas humanas. Se han propuesto vínculos con idiomas tan dispares como los idiomas caucásicos, el bereber, el egipcio antiguo, el japonés, el iroqués y otros idiomas amerindios, aunque ninguno de ellos se ha demostrado de manera concluyente. Hasta la fecha, el euskera permanece para los lingüistas como el único representante de su propia familia dialectal.

El último trazo de evidencia de la singularidad del euskera es su propio concepto de sí mismos. Los vascos se refieren a ellos mismos como *euskaldunak*, o “hablantes de euskera”. Los vascos a ambos lados de la frontera franco-hispana consideran que comparten una tradición cultural y lingüística común, muy distinta a la de las culturas francesa y española que les rodean. La simple existencia en el mundo moderno de un enclave vasco ostensible en Europa occidental tras siglos de presiones para asimilarlos en las estructuras más amplias de las naciones española y francesa es un testimonio de la tenacidad vasca para conservar sus tradiciones e identidad aparte.

Euskara, as it is called in Basque. Euskara is totally unrelated to the Indo-European languages of the continent, a fact that has prompted philologists and linguists to range far afield in search of possible connections with other human tongues. Links with such disparate languages as Caucasian, Berber, Old Egyptian, Japanese, Iroquois, and other American Indian languages have been posited, yet none have been demonstrated conclusively. To date, for linguists, Basque remains the sole representative of its own language family.


The final line of evidence for Basque uniqueness is their own self-concept. Basques refer to themselves as *Euskaldunak*, or “speakers of Basque.” Basques on both sides of the French-Spanish frontier see themselves as sharing a common cultural and linguistic tradition, one that is quite distinct from those of the surrounding French and Spanish cultures. The very existence in the modern world of a discernible Basque enclave in Western Europe after centuries of pressures to assimilate into the wider structures of the Spanish and French nations is a testament to Basque tenacity in retaining their traditions and separate identity.

Historiaurreko euskal artea eta tresnak

Arte y artefactos
prehistóricos vascos

Basque Prehistoric
Art and Artifacts

Zer aurkikuntza egin dituzte arkeologoek euskaldunen historiaurreari buruz? Leizetxiki kobazuloko aztarnategietan (Musteriar aroa), harrizko tresnak eta ehizarako armak aurkitu dituzte arkeologoek. Izturitzeko haitzuloan, berriz, harrizko tresnez gainera, adarrezkoak eta hezurrezkoak ere aurkitu dira. Goi Paleolitoan (K.a. 40.000-10.000) ehiza zen giza jarduera nagusia; hala erakusten dute aurkitu diren jaki-hondarrek, armek, lanabesek eta bestealako tresnek eta labar-arteak; aterpetzat zituzten haitzuloen kokapenetik ere garbi ondoriozta daiteke hori. Santimamiñen aurkitu zuten garai hartako aztarnategi garrantzitsuenetako bat. Historiaurreko gizaki haien haitzuloak leku estrategikoetan zeuden, animalien pasea zaintzeko eta kontrolatzeko. Sutondoa sarrera nagusiko atzealdean egoten zen; zulo moduko bat zen, gehienetan harriz inguratua. Sua gauza preziatua zen, garrantzi betekoa. Zenbait objektu apaingarritzat edo kutun gisa erabiltzen zituzten: maskor eta hagin txikiak, zuloa eginda, eta kuartzozko kristalak. Labar-pinturek iradokitzen dute ehizatzen zituzten animaliak arte- adierazpiderako gai zirela; eta seguru asko gizaki haien erlijio kezkekin bazuten nolabaiteko lotura. Azken glaziazioa K.a. 10.000. urte aldera bukatu zen. Goi Paleolitoko aldi hartako aztarna garrantzitsuak aurkitu dira Santimamiñen, Lumentxan, Bolinkoban, Ermitian, Urtiagan, Aizpitarten eta Izturitzeko haitzuloetan. Itsasbaterretik hurbil daude gehienak, eta arrantzarako tresnak (amuak eta arpoiak) aurkitu dira haitzulo horietan, eta baita garai hartan jada itsaskiak harrapatzen zituztela frogatzen duten aztarnak ere. Historiaurreko arteari dagokionez, Europako labar-pinturarik famatuena gordezen dituzten bi haitzuloren erdibidean dago Euskal Herria: Altamira (Espainian, iparraldeko erdialdean) eta Lascaux (Frantziako hego-mendebalean) artean. Hain ezagunak ez diren arren, Euskal Herrian ere badira arte horren eredu bikain askoak. Bi eratako artea egiten zen garai hartan: labar-arte, haitzuloe-tako horma edo labarrietan egiten zena; eta arte “hi-



Ekaingo kobazuloko margoak / Pinturas de la cueva de Ekain / Paintings of the cave of Ekain.

